

2016/07/26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 26/07/2016.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko uztailaren 26an, arratsaldeko bostak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las diecisiete horas y treinta minutos del día 26 de julio de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2016-05-24, 2016-05-27 eta 2016-06-15.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2016ko uztailaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren, berariaz jakinarazten dira 7. eta 8. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

3.- 2015-EKO EKITALDIKO UDAL KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2015eko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, Udalaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera, eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren aurrekontuaren kitapenak.

2016ko ekainaren 10ean egindako bilkuran Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2016ko ekainaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2015eko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2016ko ekainaren 10ean egindako Kontu Batzorde Bereziaren hasiera batean onartu ondoren, eta 2016ko ekainaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

4.- KREDITUAK ALDATZEKO 9. ESPEDIENTEA.

Kredituak aldatzeko 9. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharrezko eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 9. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

GASTU PROPOSAMENA ETA KREDITU ALDAKETA

APLIKAZIOA	IZENA	HA SIERAKO KREDITUA	GEHIKUNTZA	AMAIERAKO KREDITUA
0100.601.153.00.05 0400.421.335.10.01	OLAETAKO LADERA KONSOLIDATZEA APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	150.000,00 54.675,75	35.885,61 2.676,32	185.885,61 57.352,07
GUZTIRA		204.675,75	38.561,93	243.237,68

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen aplikazioak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0200.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: gastu orokorretarako		8.561,93 €
ASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			38.561,93 €

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

5.- ZARIMUTZ ELIZATEAKO AUZO-LOKALARI ATXIKITAKO ERAIKINEAN KOMUNA EGOKITZEKO OBRAK GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA UDAL ZERGETARAKO.

2016ko ekainaren 16ko Alkate erabakiz, ondoren adieraziko diren lanak egiteko lizentzia eman zitzaion MUITXU-ZARIMUTZ ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEARI: Zarimutz elizatearen auzo-lokalari atxikitako komuna egokitzea.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 58,11 € eta 937,26 € hurrenez hurren.

2016ko ekainaren 27an, EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da.

Kontuan hartuz komuna elizateko auzo-lokalerako egokitu dela, eta auzo-lokalak interes sozio-kultural nabarmena duela auzotarren arteko elkartegintza sustatzen dituzten ekintzak egitea erraztu eta udaleko gaietan elizateko bizilagunek parte hartzeko balio duelako, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- HERRI ONURAKOTZAT IZENDATZEA ZARIMUTZEKO AUZO-LOKALEAN KOMUNA EGOKITZEKO OBRAK, eta beraz, %95eko hobaria egitea EIOZak sortutako kuotan.

6.- HAINBAT KIROL ZERBITZU EMATEKO E-GOITEKI ESLEITUTAKO KONTRATUA EZ LUZATZEARI BURUZKO ETA KIROL AHOLOKULARITZA ETA KUDEAKETA EMATEKO ROSA LASAGABASTERRI ESLEITUTAKO KONTRATUAREN INDARRALDIAREN AMAIERA JAKINARAZTEARI BURUZKO ERABAKIA. BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA KIROL ARLOKO HAINBAT ZERBITZU KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA.

Udalbatzarrak 2013ko otsailaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiz, kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua Rosa Lasagabaster Armendarizi esleitu zitzaion 22,00 € gehi BEZari dagozkion 4,62 € orduko prezioan. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Administrazio baldintza partikularren agiriko 2. baldintzaren arabera, epe hori beste bi alditan luza zitekeen urtebetez.

Udalak 2014ko abenduaren 16an eta 2015eko abenduaren 15ean hartutako erabakiz, kontratua bi urte gehiagoz luzatu zen, eta orain ezinezkoa da hirugarren luzapen bat egiterik.

2014ko ekainaren 24an Udalbatzarrak hartutako erabakiz, hainbat kirol zerbitzu emateko kontratua E-GOITEK S.L.-ri esleitzea erabaki zen ondoren zehazten diren prezioetan:

- SOROSPENA: 23,51 €/orduko + BEZaren %21a
- ATEZAINZA: 20,53 €/orduko + BEZaren %21a
- FITNESS: 24,97 €/orduko + BEZaren %21a
- JARDUERAK: 24,97 €/orduko + BEZaren %21a

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa da, dagokion kontratua formalizatutako egunetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu daiteke, gehienez ere beste 2 urtez. Horregatik, berariaz egindako luzapenik gabe, kontratuaren indarraldia datorren irailaren 30ean amaitzen da.

Zerbitzua hobetzearen eta kosteak merkatzearen alde, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak proposatzen du 2016ko ekainaren 24an ez luzatzea E-GOITEK S.L.-ri esleitutako kontratua, eta prozedura ireki berri bat hastea aholkularitza tekniko zerbitzua zein ikastaroen kudeaketa eta sorospen eta atezaintza bezalako zerbitzuak kontratatzeko.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Aintzane Agiriano eta Nestor Arana abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2014ko ekainaren 24ko erabakiz, hainbat kirol zerbitzu emateko E-GOITEK.S.L.-ri esleitutako kontratua amaitutzat ematea 2016ko irailaren 30eko eraginarekin.

Bigarrena.- Rosa Lasagabaster Armendarizi jakinaraztea 2017ko otsailaren 14an amaitzen dela aholkularitza eta kirol kudeaketa zerbitzua emateko 2013ko otsailaren 13an esleitutako kontratuaren indarraldia.

Hirugarrena.- Eskoriatzako Udalarari kirol arloan zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko prozedura irekia deitzea.

Laugarrena.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bategineko 110.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratua esleitu baino lehen 2016ko aurrekontu ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa kontsignatzeko konpromisoa hartzea kontratutik eratorri daitezkeen betebeharrei erantzun ahal izateko, eta baita hurrengo urteetako aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko ere.

Bosgarrena.- Esleipena egiteko prozedurarako deialdia egitea, horretarako iragarkia jarri EEAO, BOEn, GAOn eta kontratatzailearen profilean.

Bozketa aurretik, Aitor Zubizarretak ondorengo galderak egin ditu:

1. galdera: kontuan izanik kirol teknikariaren funtzioetako bat kirol jarduerak ematen dituen enpresak eskaintako zerbitzuak gainbegiratzea dela, eta orain lote batean doazela teknikari

horren zerbitzuak eta kirol zerbitzuak, ez dago kontradikziorik enpresa bera izatearekin bere jarduera gainbegiratuko duena?

2. galdera: Kontratuaren preziok igoera nabarmena izan du, zergatik?

Josu Ezkurdiak erantzun dio:

1. galderari: Udalak ez du orain teknikaririk, kirol aholkulari baten zerbitzuak baizik. Horren funtzioa ez da kontrolatzea, bere funtzioa gehiago da kirol jarduerak ematen dituen enpresari laguntzea.

2. galderari: igoeraren arrazoia da gastua kalkulatzeko kontuan izan dela indarrean dagoen kontratuko baino egutegi eta ordutegi askoz zabalagoa dela. Egutegi eta ordutegi hori gutxi gorabeherakoak dira, hilerok zehaztuko direnak zerbitzuaren benetako beharren arabera. Uste dugu gastu hori bere gain hartu dezakeela Udalak, eta horrela aurreikusiko dugu datorren urterako aurrekontuan. Izan ere, aurtengo onartu dugu igoeraren zati bat, kiroldegia zabalik egon baita Aste Santuan, eta abuztuan ordutegia luzatzea ere aurreikusten da.

Aitor Zubizarretaren galdera: eta ordutegia luzatzeak ba al du eraginik udal honetako langileen lanaldian?

Erantzun diote ezetz, udal plantillako langileek hitzarmenean ezarritako ordutegiarekin jarraituko dutela.

7.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA (0-3 URTE, HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) KUDEATZEKO KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

2013ko uztailaren 23an Udalbatzarrak hartutako erabakiz, Haur Eskolako (0-3 urte, haur hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko kontratua ARIZMENDI S.COOP. enpresari esleitu zitzaion. Esleipenaren urteko prezioa 14.577,06 € zen, eta zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiboen eta teknikoen, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzen arabera egin behar zen kudeaketa.

Kontratuaren hasierako iraupena urtebetekoa izan zen, eta urtebeteko bi luzapen izan ditu, eta URTEBETEKO berriazko beste luzapen bat izan dezake alde bietan horrela adostuz gero.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua urtebeteko luzatzea, izan ere, enpresak emandako zerbitzuak beharrezkoak dira eskolaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Aurrez esandakoaren arabera, Kultura, Euskara eta Kirolak batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Urtebetez luzatzea 2013ko uztailaren 23an ARIZMENDI S.COOP enpresari Haur Eskolako (0-3 urte, haur hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratua.

BIGARRENA.- Kontratua, luzatutako aldirako, 14.474,64 euro/urteko prezioan finkatzea.

8.- ESKORIATZAKO OLAETA PLAZAKO ERAIKINEN ATZEALDEAN DAGOEN LUR-ERAUZKETA EGONKORTZEKO NEURRIAK ERAIKITZEKO PROIEKTUA ONARTZEA. PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA: BALDINTZA AGIRIA ONARTZEA ETA LEHIAKETA.

Hirigintza zerbitzutik proposamena egin da ESKORIATZAKO OLAETA PLAZAKO ERAIKINEN ATZEALDEAN DAGOEN LUR-ERAUZKETA EGONKORTZEKO NEURRIAK ERAIKITZEKO PROIEKTUA” onartzeko.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ESKORIATZAKO OLAETA PLAZAKO ERAIKINEN ATZEALDEAN DAGOEN LUR-ERAUZKETA EGONKORTZEKO NEURRIAK ERAIKITZEKO PROIEKTUA onartzea.

9.- ALKATETZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA “GUREL LEINTZ GATZAGAKO GURASO ELKARTEAK”, “KOLDOTXO LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEAK” ETA LEINTZ GATZAGAKO UDAL TALDEEK ESKATUTA.

Alkate jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

GUREL Leintz Gatzagako Guraso Elkarteak, **KOLDOTXO** Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak eta **Leintz Gatzagako udal taldeak**, ondorengo mozioa aurkezten dugu Eskoriatzako udaleko osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Gatzagako guraso elkarte eta udalak maiatzean jakin izan genuen, Gatzagako herriak duen gela desplazatua itxia izango zela datorren ikasturterako, eta ondorioz, 15 urte ondoren, bere momentuan herri ekimenaren bidez irekitzea lortu zen 2-5 urteko gelaren ibilbideari amaiera emango zitzaioala.

Gatzagako herriak, Gatzagako herritarrek, 70.hamarkadako egoerari buelta emateko helburuarekin auzolanean, elkarlanean hasi ziren Gatzaga herri bizia izan eta etorkizuna izateko. Herritarren ekimenari esker eta urteetako lanaren ondorioz, hainbat proiektu bultzatzea, sortzea eta egonkortzea lortu zen. Ondorioz, Gatzagan herritarrek bizitzeko toki aproposa bilakatuz, baita herriko txikitxoentzat ere.

Gatzagak, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako gela desplazatua dauka herrian. Udala arduratu izan da, gelaren inbertsio, mantenu eta bitarteko materialez, eta irakaslea Luis Ezeiza ikastetxekoa da. 2015 ikasturtean, Gatzagako udala eta guraso elkarteak, Hezkuntza Sailarekin harremanetan aritu ziren Lehen Hezkuntza ezartzeko herrian; baina arrakasta gabe. Harreman eta kudeaketa horien ondorioa eta lorpena izan zen, Hezkuntza Sailaren aldetik jasotako konpromisoa, alegia 2-5 urteko gela irekia mantenduko zutela eta ez zutela itxiko. Baina hitzak haizeak eraman ditu eta 2016 – 2017 ikasturtera begira, Hezkuntza Saila kontrako erabakiarekin etorri da, inolako azalpen ofizialik gabe. Omen, Luis Ezeizan matrikulazioa jaitsi dela.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo adierazpena egiten du Eskoriatzako udalak:

1.- Eskoriatzako udalak bere babesa ematen die Gatzagako herriari eta Gatzako guraso elkarteari.

2.- Eskoriatzako udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio mantentzeko Gatzagako gela desplazatua irekita. Izan ere, herri txikietako bizitza eta biziraupenerako haurrak bertan ahalik eta bizitza gehien egiteak duen garrantzia funtsezkoa baita.

3.- Eskoriatzako udalak bat egiten du Gatzagako herriak sustatzen dituen auzolan eta balore kolektiboekin eta horiek, gure bailaran zabaltzeko, herrien arteko elkarlan eta hartu emana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

4.- Eskoriatzako udalak adierazpen hau Jaurilaritzako Hezkuntza Sailera eta Legebiltzarrerara igorriko du, dagozkien agintariak jakinaren gainean egoteko.

Bozkatu ondoren, mozioa aho batez onartu da.

10.- GALDE-ESKEAK.

10.1.- Batzordearako eta udalbatzarretarako aurreikusitako egutegia

Aitor Zubizarretak, agintaldiaren urtebete igarota horri buruzko balorazioa egin dezaketela esan ondoren, eskatu du udalbatzarretarako eta batzordearako aurrez jarritako egunak errespetatu daitezela, berak esan duenez, izandako esperientziatik ikusten baita maiz aldatzen direla.

Alkateak erantzun dio aldaketak justifikatuak izan direla beti, eta baita ere zinegotzi guztiekin adostu direla beti egun eta ordu berriak. Hala ere, esan du, aurreikusitako egutegia ahalik eta ondoen betetzen saiatuko direla.

2.- Atxorrotzeko udal saileko pagadia.

Aitor Zubizarretak eskatu zerbait egin dadila Udalak Atxorrotxen duen lur sailean. Adierazi du pagadia oso itxia dagoela, ez dela argirik sartzen, eta ez dakiela pagoak moztea zuzena izango zen, baina uste duela zerbait egin beharko litzatekeela.

Alkateak eskaera jaso du, eta esan du oso egokia iruditzen zaiola. Ondoren adierazi du, gogoeta bezala, Atxorrotx inguruan onar daitezkeen erabilerak arautzeari buruzko ideia mahai gaineratu nahi duela, orain gutxi hainbat gertaera izan direlako, eta adibide bezala, honakoak esan ditu: gune horretan aurkitutako gasolina putzua, beherago dagoen askan eragindako kalteak...

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:35ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 24/05/2016, 27/05/2016 y 15/06/2016.

2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 20 de julio de 2016 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificación de créditos N.º 7 y Nº8.

3.- APROBACIÓN DE LAS CUENTAS GENERALES DEL AYUNTAMIENTO CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO 2015.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2015, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento.

En sesión de fecha 10 de junio de 2016 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 15 de junio de 2016, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2015, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 10 de junio de 2016 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 15 de junio de 2016, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

4.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N.º 9.

Dada lectura del expediente de Modificación de Créditos Nº9, mediante Créditos Adicionales que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO**.

Se da cuenta del informe emitido por la secretaria-interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Visto el informe emitido desde secretaría intervención, se somete a votación la propuesta.

Con el voto a favor de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Créditos Adicionales, nº 9 que afecta al Presupuesto de este **AYUNTAMIENTO** del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

PROPUESTA DE GASTO Y MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

APLIKAZIOA	IZENA	HASIERAKO KREDITUA	GEHIKUNTZA	AMAIERAKO KREDITUA
0100.601.153.00.05	OLAETAKO LADERA KONTOLIDATZEA APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	150.000,00	35.885,61	185.885,61
0400.421.335.10.01		54.675,75	2.676,32	57.352,07
GUZTIRA		204.675,75	38.561,93	243.237,68

Concepto de ingresos o aplicaciones de gastos	Concepto de recursos (11)	Mayores ingresos / bajas de gasto	Parcial de recursos de
0200.870.000.00.01	Remanente de tesorería para gastos generales		38.561,93 €
TOTAL INCREMENTO DE GASTOS			38.561,93 €

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

5.- DECLARACIÓN A EFECTOS TRIBUTARIOS MUNICIPALES COMO DE INTERES DE SOCIAL LAS OBRAS DE ADECUACION DE UN BAÑO EN EL ANEXO AL AUZO-LOKAL DE LA ANTEIGLESIA DE ZARIMUTZ.

Por Resolución de Alcaldía de fecha 16 de junio de 2016 se concedió a MUITXU-ZARIMUTZ ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEA licencia para la realización de las obras que a continuación se indican: adecuación de un baño anexo al auzo-lokal de Zarimutz Elizatea.

Con motivo de la licencia concedida se procedió a liquidar provisionalmente la tasa e impuestos devengados, cuyos importes ascienden respectivamente a 58,11 € y 937,26 €.

Con fecha 27 de junio de 2016 se solicita se aplique en la cuota del ICIO la bonificación prevista en el artículo 5.3.3.4 de la vigente Ordenanza Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Atendiendo que el baño ha sido acondicionado con destino al auzo-lokal de la anteiglesia, y que este último tiene marcado interés socio cultural por cuanto que el mismo sirve para facilitar actividades que promuevan el asociacionismo vecinal , la participación de los vecinos de la anteiglesia en asuntos de interés municipal; con el voto favorable de todos los corporativos presente, el Pleno ACUERDA:

Primero: DECLARAR LA OBRA DE ADECUACION DE UN BAÑO EN EL AUZO-LOKAL DE ZARIMUTZ DE INTERES SOCIAL y en consecuencia amparada en una bonificación del 95% de la cuota devengada del ICIO.

6.- ACUERDO SOBRE NO PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DE DIVERSOS SERVICIOS DEPORTIVOS ADJUDICADO A E-GOITEK Y SOBRE NOTIFICACIÓN DE FIN DE VIGENCIA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORIA Y GESTIÓN DEPORTIVA ADJUDICADO A ROSA LASAGABASTER. APROBACIÓN DEL PLIEGO E INICIO DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE DIVERSOS SERVICIOS EN MATERIA DEPORTIVA.

Mediante acuerdo plenario de fecha 13 de febrero de 2013 se acordó adjudicar el contrato para la prestación del servicio de asesoramiento y gestión deportiva a Rosa Lasagabaster Armendariz por un precio de 22,00 euros/hora, más 4,62€ correspondientes al IVA. El plazo inicial de duración del contrato fue de 2 años.

De acuerdo con la cláusula 2 del pliego de cláusulas administrativas particulares, dicho plazo era prorrogable dos veces por un periodo de un año cada una.

Por sendos acuerdos del Ayuntamiento en Pleno adoptados en fechas 16 de diciembre de 2014 y 15 de diciembre de 2015, el contrato fue prorrogado por dos años más, no siendo posible una tercera prórroga.

Mediante acuerdo plenario de fecha 24 de junio de 2014 se acordó adjudicar el contrato para la prestación de diversos servicios deportivos a E-GOITEK S.L. con arreglo a los precios a continuación señalados:

- SOCORRISMO: 23,51 €/hora + 21% de IVA
- CONSERJERIA: 20,53 €/hora + 21% de IVA
- FITNESS: 24,97 €/hora + 21% de IVA
- ACTIVIDADES : 24,97 €/hora +21% de IVA

El plazo de duración del contrato es de 2 años, a contar desde la fecha de formalización del correspondiente contrato, prorrogable anualmente hasta un máximo de otros 2 años. Por ello, a falta de prórroga expresa, la vigencia del contrato finaliza el próximo 30 de setiembre.

De cara a mejorar el servicio y abaratar costes, desde la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera se propone no prorrogar el contrato adjudicado a E-GOITEK S.L. en fecha 24 de junio de 2016 e iniciar un nuevo procedimiento abierto para contratar tanto el servicio de asesoría técnica como el de gestión de cursos y los diferentes servicios como socorrismo y conserjería.

Con base a cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Deportes y Euskera, y con la abstención de Aintzane Agiriano y de Nestor Arana y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Dar con efectos a fecha 30 de setiembre de 2016 por finalizado el contrato adjudicado por acuerdo de fecha 24 de junio de 2014 a E-GOITEK S.L. para la prestación de diversos servicios deportivos.

Segundo: Notificar a Rosa Lasagabaster Armendariz que con fecha 14 de febrero de 2017 finaliza la vigencia del contrato adjudicado en fecha 13 de febrero de 2013 para la prestación del servicio de asesoramiento y gestión deportiva.

Tercero: Convocar procedimiento abierto para la adjudicación del contrato de prestación de servicios en materia deportiva al Ayuntamiento de Eskoriatza.

Cuarto: De acuerdo a lo previsto en el artículo 110.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, adquirir el compromiso de consignar antes de la adjudicación del contrato el crédito adecuado y suficiente para hacer frente a las obligaciones derivadas del mismo durante el ejercicio presupuestario 2016; así de reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

Quinto: Convocar el procedimiento para la adjudicación mediante inserción de anuncio en el DOCE, B.O.E, B.O. de la Provincia y en el Perfil del Contratante.

Antes de la votación, Aitor Zubizarreta ha cursado las siguientes preguntas:

Pregunta 1: Teniendo en cuenta que una de las funciones del la técnica de deportes es supervisar los servicios prestados por la empresa que presta las actividades deportivas, y partiendo del hecho de que ahora se mete en un único paquete los servicios de dicho técnico y los servicios deportivos ¿no puede haber una contracción en el hecho de que sea la misma empresa la que se autovigile?

Pregunta 2: El precio del contrato se ha incrementado considerablemente ¿a qué se debe?

Josu Ezkurdia le responde:

A la pregunta 1: Ahora este ayuntamiento no dispone de técnico, sino que cuenta con los servicios de una asesor deportivo. Este último no tiene como función el controlar, sino que su función es más el de colaborar con la empresa que prestas las actividades deportivas.

A la pregunta 2: El incremento se debe a que el gasto estimado está calculado teniendo en cuenta un calendario y un horario de apertura mucho más amplio al del vigente contrato. Dicho calendario y horario son estimados y mensualmente se concretarán en función de las necesidades reales del servicio. Consideramos que ese gasto es asumible por el ayuntamiento y así lo preveeremos en el presupuesto del año que viene. De hecho, este año ya hemos asumido parte del incremento por cuanto que en Semana Santa el polideportivo ha estado abierto y durante el mes de agosto se contempla ampliar el horario de apertura.

Aitor Zubizarreta pregunta: y ¿tiene alguna incidencia en la jornada laboral de los trabajadores del ayuntamiento el incremento de dicho horario de apertura?

Se le responde que no, que los trabajadores de plantilla del ayuntamiento seguirán teniendo el horario fijado en el convenio.

7.- ACUERDO SOBRE PRÓRROGA DEL CONTRATO DE GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE ESCUELA MUNICIPAL INFANTIL 0-3 AÑOS (PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL).

Mediante acuerdo plenario de fecha 23 de julio de 2013 se acordó adjudicar el contrato de gestión del servicio de Escuela Municipal Infantil de 0-3 años (primer ciclo de educación infantil) a la empresa ARIZMENDI S.COOP . al precio anual de 14.577,06 € , y con arreglo al Reglamento que rige el Servicio, a los Pliegos de Cláusulas Administrativas y de Condiciones Técnicas y mejoras introducidas por el adjudicatario en su oferta.

El plazo inicial de duración del contrato fue de 1 año, ha sido objeto de dos prórrogas de un año cada una y es susceptible de prórroga expresa y mutuamente acordada por otro periodo de UN AÑO.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite informe en que se considera conveniente la prórroga del contrato por el plazo de un año, dado que los servicios prestados por la empresa son necesarios para el buen funcionamiento de la escuela, este Ayuntamiento carece de personal propio que pueda desempeñar estos trabajos.

De acuerdo con lo anterior, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera y Deportes y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar por periodo de un año el contrato adjudicado el 23 de julio de 2013 a ARIZMENDI S.COOP para la gestión del servicio de Escuela Municipal Infantil de 0-3 años (primer ciclo de educación infantil).

SEGUNDO: Fijar el precio del contrato para el periodo prorrogado en 14474,64 euros /año.

8.- APROBACIÓN DEL PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LAS MEDIDAS DE ESTABILIZACIÓN DEL DESMONTE EXISTENTE EN LA TRASERA DE LOS EDIFICIOS DE LA PLAZA OLAETA DE ESKORIATZA. INCOACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACION POR PROCEDIMIENTO NEGOCIADO: APROBACION DEL PLIEGO Y LICITACION.

Desde el área de Urbanismo se eleva propuesta de aprobar el "PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LAS MEDIDAS DE ESTABILIZACIÓN DEL DESMONTE EXISTENTE EN LA TRASERA DE LOS EDIFICIOS DE LA PLAZA OLAETA DE ESKORIATZ. "

Con base a cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar el Proyecto de "PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LAS MEDIDAS DE ESTABILIZACIÓN DEL DESMONTE EXISTENTE EN LA TRASERA DE LOS EDIFICIOS DE LA PLAZA OLAETA DE ESKORIATZA".

9.- MOCIÓN PRESENTADA POR LA ALCALDIA A INSTANCIA DE "GUREL LEINTZ GATZAGAKO GURASO ELKARTEA", "KOLDOTXO LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEA" Y LOS GRUPOS MUNICIPALES DE LEINTZ GATZAGA.

El Alcalde lee la parte dispositiva de la moción cuyo texto íntegro se transcribe a continuación:

GUREL Leintz Gatzagako Guraso Elkarteak, **KOLDOTXO** Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak eta **Leintz Gatzagako udal taldeak**, ondorengo mozioa aurkezten dugu Eskoriatzako udaleko osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Gatzagako guraso elkarte eta udalak maiatzean jakin izan genuen, Gatzagako herriak duen gela desplazatua itxia izango zela datorren ikasturterako, eta ondorioz, 15 urte ondoren, bere momentuan herri ekimenaren bidez irekitzea lortu zen 2-5 urteko gelaren ibilbideari amaiera emango zitzaioela.

Gatzagako herriak, Gatzagako herritarrek, 70.hamarkadako egoerari buelta emateko helburuarekin auzolanean, elkarlanean hasi ziren Gatzaga herri bizia izan eta etorkizuna izateko. Herritarren ekimenari esker eta urteetako lanaren ondorioz, hainbat proiektu bultzatzea, sortzea eta egonkortzea lortu zen. Ondorioz, Gatzagan herritarrek bizitzeko toki aproposa bilakatuz, baita herriko txikitxoentzat ere.

Gatzagak, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako gela desplazatua dauka herrian. Udala arduratu izan da, gelaren inbertsio, mantenu eta bitarteko materialez, eta irakaslea Luis Ezeiza ikastetxekoa da. 2015 ikasturtean, Gatzagako udala eta guraso elkarte, Hezkuntza Sailarekin harremanetan aritu ziren Lehen Hezkuntza ezartzeko herrian; baina arrakasta gabe. Harreman eta kudeaketa horien ondorioa eta lorpena izan zen, Hezkuntza Sailaren aldetik jasotako konpromisoa, alegia 2-5 urteko gela irekia mantenduko zutela eta ez zutela itxiko. Baina hitzak haizeak eraman ditu eta 2016 – 2017 ikasturtera begira, Hezkuntza Saila kontrako erabakiarekin etorri da, inolako azalpen ofizialik gabe. Omen, Luis Ezeizan matrikulazioa jaitsi dela.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo adierazpena egiten du Eskoriatzako udalak:

- 1.- Eskoriatzako udalak bere babesa ematen die Gatzagako herriari eta Gatzako guraso elkarteari.
- 2.- Eskoriatzako udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio mantentzeko Gatzagako gela desplazatua irekita. Izan ere, herri txikietako bizitza eta biziraupenerako haurrak bertan ahalik eta bizitza gehien egiteak duen garrantzia funtsezkoa baita.
- 3.- Eskoriatzako udalak bat egiten du Gatzagako herriak sustatzen dituen auzolan eta balore kolektiboekin eta horiek, gure bailaran zabaltzeko, herrien arteko elkarlan eta hartu emana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- 4.- Eskoriatzako udalak adierazpen hau Jaurilaritzako Hezkuntza Sailera eta Legebiltzarrerara igorriko du, dagozkien agintariak jakinaren gainean egoteko.

Sometida a votación, la moción es aprobada por unanimidad.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

10.1.- Calendario previsto para comisiones y plenos

Aitor Zubizarreta, tras decir que pasado un año de legislatura pueden hacer una valoración de la misma, cursa el ruego de que se respeten la fechas prefijadas para los pleno y las comisiones porque, dice, la experiencia habida constata que se cambian con frecuencia.

El alcalde le responde que los cambios siempre han sido justificados, así como que también siempre se ha consensuado con todos los nueva fecha y horario. No obstante, dice, se tratará de cumplir al máximo con el calendario previsto.

2.- Hayedo del terreno municipal de Aitxorrotx.

Aitor Zubizarreta solicita que se actúe en el hayedo existente en el terreno que el ayuntamiento tiene en Aitxorrotx. Manifiesta que el hayedo se ha convertido en un espacio muy cerrado en el que no entra la luz y que no sabe si una trasmocha sería lo correcto, pero sí entiende que algo habría que hacer.

El alcalde toma nota de la solicitud y afirma que considera muy adecuada la sugerencia. A continuación manifiesta que, a modo de reflexión, quiere lanzar la idea de una posible regularización de los usos a admitir en la zona de Aitxorrotx y ello ante hechos acaecidos recientemente, y, a modo de ejemplo, cita los siguientes: el charco de gasolina hallado en la zona, los daños ocasionados al abrevadero emplazado más abajo,....

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:35 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.